

GALERNA. 22 DE JUNIO

El día 22 de junio una galerna de carácter moderado (racha máxima de viento 60-90 km/h) atraviesa las costas de la CAPV, alcanzando la estación de Punta Galea a las 18:50 UTC, con una racha máxima de 77 km/h. A las 19:20 UTC la galerna alcanza Bermeo, donde se registra la racha de viento más intensa del episodio con 86 km/h (ver figura 4.1). A partir de este punto la galerna prosigue su marcha hacia el este, disminuyendo algo en intensidad y alcanzando Jaizkibel a las 20:10 UTC, donde se registra una velocidad de 78 km/h (ver figura 4.2). El tiempo empleado por la perturbación en recorrer 100 km de costa vasca es de aproximadamente 1 hora 10 min, originando un descenso de las temperaturas del orden de 6–7 °C en 10 minutos, desde valores superiores a 30 °C hasta próximos a 20°C tras su paso (ver figura 4.3).

En el análisis en superficie de las 12 UTC del día 22 (ver figura 4.5) se observa una profunda depresión de 994 mb centrada a unos 200 km al sur de Irlanda. Esta depresión se traslada en dirección nordeste y se profundiza de tal forma que, doce horas después, su núcleo registra una presión de 986 mb (ver figura 4.6). Un frente frío asociado a esta depresión atraviesa el Cantábrico durante la tarde y noche. La dirección del viento en superficie cambia de SW a W al paso del frente.

En el nivel de 850 hPa se observa a las 18 UTC un gradiente cercano a 10 °C entre Galicia y el Cantábrico Oriental, donde se produce una entrada de aire cálido desde el norte de África. La temperatura en este nivel es de 20 °C sobre el Cantábrico Oriental y los vientos del suroeste son muy fuertes durante todo el día (ver figura 4.7).

En el nivel de 500 hPa se observa como hecho más relevante una fuerte circulación zonal del oeste sobre la Península Ibérica con vientos de dirección W-SW (ver figura 4.8)

En el interior del territorio la galerna apenas se hace notar, salvo en el valle del Ibaizabal, debido a su orientación NW-SW. En las estaciones de montaña el comportamiento del viento es distinto al observado en las estaciones de costa, con vientos de componente sur previos a la galerna de mayor intensidad que en el giro del viento. Estos hechos ponen de manifiesto el carácter superficial y costero que posee la galerna (ver figura 4.4).

ENBATA. EKAINAREN 22A

Ekainaren 22an, enbata ertain batek (haize-abiadura maximoa 60-90 km/h) EAeko kostaldea zeharkatu zuen, Galeako estaziora 18:50ean UTC heldu zelarik, 77 km/h-ko haize-bolada maximoarekin. 19:20ean UTC enbata Bermeora heldu zen, bertan gertakari honetako haize-boladarik indartsuena neurtu zelarik, 86 km/h (ikus 4.1 irudia). Toki horretatik, enbatak bere ibilbidearekin jarraitu zuen ekialderantz, indarra galduz eta Jaizkibelera 20:10ean UTC helduz, 78 km/h-ko abiadurarekin (ikus 4.2 irudia). Euskal kostaldeko 100 km egiteko ordu bete eta hamar minutu behar izan zituen eta tenperatura 6-7 °C jaitsi zen hamar minututan, 30 °C ingurutik 20 °C-ra enbata pasa ondoren (ikus 4.3 irudia).

Hilaren 22an 12:00etan UTC egindako analisiaren arabera (ikus 4.5 irudia), Irlanda hegoaldean 200 km-ra 994 mb-eko depresio sakon bat garatu zela ikus daiteke. Depresio hau ipar-ekialderantz joan eta sakondu egin zen bere guneak 986 mb izan arte (ikus 4.6 irudia). Depresio honi lotutako fronte hotzak Kantauri itsasoa zeharkatu zuen arratsalde-gaua bitartean. Gainera, frontea pasatzean, azaleko haizearen norabidea aldatu egin zen hego-mendebaldetik mendebalderantz.

850 hPa-etan, 18:00etan UTC 10 °C inguruko gradientea sortu zela ikus daiteke Galiza eta Kantauri itsasoaren ekialdearen artean. Bertan, aire beroa sartu zen Afrika iparraldetik. Tenperatura maila horretan Kantauri itsasoaren ekialdean 20 °C-koa zen eta egun osoan zehar hego-mendebaldeko haize oso gogorra ibili zen (ikus 4.7 irudia).

500 hPa-etan, gauzarik aipagarriena mendebaldeko eskualde-zirkulazioa izan zen Iberiar Penintsularen gainean, mendebal/hego-mendebaldeko haizearekin (ikus 4.8 irudia).

Lurraldearen barnealdean enbata ez zen ia igarri. Ibaizabaleko arroan, ordea, bere NW-SE norabidea dela eta, zerbait sentitu zen. Mendialdeko estazioetan, haizearen jokabidea ez zen kostaldeko estazioetakoa bezalakoa izan, enbataren aurretik hegoaldeko haizeak indartsuago jo zuelarik, haizeak biratzerakoan baino. Honek guztiak, enbataren kostako eta azaleko izaera erakusten du (ikus 4.4 irudia).






Figura 4.1. Velocidad del viento en Punta Galea, Bermeo y Ondarrea el 22/06/2004.
4.1. irudia. Haize-abiadura Galean, Bermeon eta Ondarroan, 2004/06/22an.




Figura 4.2. Velocidad del viento en Zarautz, Pasajes y Jaizkibel el 22/06/2004.
4.2 irudia. Haize-abiadura Zarautzen, Pasaian eta Jaizkibelen, 2004/06/22an.






Figura 4.3. Temperatura en Punta Galea, Zarautz y Jaizkibel el 22/06/2004.
 4.3 irudia. Temperatura Galean, Zarautzen eta Jaizkibelen, 2004/06/22an.





Figura 4.4. Velocidad del viento en La Garbea y en Iurreta, 22/06/2004.
4.4 irudia. Haize-abiadura Garbean eta Iurretan, 2004/06/22an.




Figura 4.5. Presión al nivel del mar y frentes. 22/06/2004 a las 12 UTC.
4.5 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2004/06/22 12etan UTC.




Figura 4.6. Presión al nivel del mar y frentes. 23/06/2004 a las 00 UTC.
4.6 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2004/06/23 00tan UTC.




Figura 4.7. Geopotencial e isotermas a 850 hPa. 22/06/2004 a las 18 UTC.
4.7 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-etara. 2004/06/22 18tan UTC.




Figura 4.8. Geopotencial e isotermas a 500 hPa. 22/06/2004 a las 18 UTC.
4.8 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-etara. 2004/06/22 18tan UTC.